

Mikel Laboa:

Komunikazio - Inkomunikazio

Orain dela pare bat hilabete pasa, azaltzen zuen Mikel Laboak Euskal Herriko lau hiriburuetan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan "Komunikazio-Inkomunikazio" deitzen zuen saio berezia.

Alde batetik, ez zuen jaso merezi zuen aipamen kritikorik eta bestetik, ez du ordutik hona beste inon ere bere saio hori azaldu Mikelek, hemen Euskal Herrian.

Oso saio inportantea izan zela iruditzen zait Mikelena, eta horregatik zerbait idatzi nahi nuke hemen saio hura gogoratuz, eta saio hura Euskal Herrian barna zabaltzearren beharra eta egokitasuna aldarrikatuz.

Gaurko gizarte heziketa berriaren bideetan ikusten dut nik Mikel Laboren saioa; gaurko kultur giro eta bide berrien bideetan.

Benetako kreatze lan orok bezala, libertate giro bat sortzen digu Mikelek bere saioaren bidez, denok elkarrekin kreatzaile sentitzen garen libertate giro bat.

Kreatze giro ireki horretan, poz giroan, giro betean murgiltzen gara barne barnetik, eta bakoitzak geure baitan, baina albokoekin bidekide sentituz, bidaia eder bat egiten dugu mundu berrietan barna, edota mundu ezagunetan barna baina saskonkiago biziz eta sentituz mundu horik.

Arte obra on batek bezala, poesi, nobela edo antzerki obra on batek bezala, bakoitza geure baitan biltzeko giro ireki eta librea sortzen

zaigu Mikelen saio horren inguruan.

Pozik sentitzen zara giro horretan, pozik, gustora, batere esplikapenik gabeko pozez; eta pozean bilduta bidaiatzen hasten zara zenbait mundutatik zehar.

Mundu ezagunetan barna, giza kulturen, gizonen arteko komunikazio-inkomunikazioak biziz eta sentituz.

Zeure barnean igarotzen zaizkizu halako betetasun batean lehengo mundu sakratuak, oraingo mundu istilotsu eta hitzunak, umorea tarteke, oraingo doinu hunkigarri eta isilean amesten diren beste mundu zorientzuen maiteminak,...

Ezagutzen ez dituzun baina nolabait sumatzen dituzun zeure mugen haruntzikako munduen oihartzunak sentitzen dituzu barnean, eta halako zirrara batek astintzen zaitu...

Mikel Laboak badaki kreatzen, eta horixe da edozein artistaz esan dezakegun gauzarik haundiena. "Komunikazio Inkomunikazio" obrarekin bide bat irekitzen digu, bakoitzak geure baitan krea dezagun.

Beste urrats edo pauso bat behar luke orain obra horrek: bakoitzaren kreaioak besteen kreaioekin elkartu, edo elkarrekin kreatu, obra kolektibo bat sortuz.

Zoritzarrez hitz hutsak ditugu ondoko espresakera hauk: poesi kolektiboa, espektakulo kolektiboa, antzerki kolektiboa, etab. (Agian, "bertsoa, bertsolaritza" dugu kolekti-

boena, baina hor ere bada zer hobetarik azkenaldi honetan).

Mikelek zabaldu digu ate bat. Ederra izango litzateke beste atea irekiz, obra kolektibo batetara iristea berarekin batera.

Hauxe adierazi nahi nuen gutxi gora behera Mikelen obra gogoratuz, eta haren obraren beharra eta egokitasuna aldarrikatuz Euskal Herriarentzat.

Norbaitek zerbait horrelakorik zioen, orain dela bi hilabete pasa, Mikelen obra horri buruz: "uste dut, ez diola ezer haundirik aportatzen, Mikelek, euskal kantagintzari obra honekin".

Nire ustea oso bestelakoa da, hemen idatzi dudanetik ondoriotu daitekenez. Agian, Mikel Laboarena dugu aportaziorik inportanteena euskal kantagintzarentzat; eta, nire aldetik, "agian" ere kenduko nuke.

Iñaki ZUBIZARRETA

Esanahia

anitz: asko
arrakasta: éxito
betaurrekoak: gafas
Ekialde - Hurbil: Oriente Próximo
hauzitegi: tribunal
hornitu: proveer
istripu: ez behar, accidente
judu: judegu, judío
onartu: aceptar
urduri: kezkatu, inquieto

Gezurak buztana labur

EGIN-7-1-78